

PRENTSA OHARRA

Euskadiko oinarri teknologikoko ikus-entzunezkoen industria Broadcast azokan izango da, **Basque Audiovisual Services + Tech** markarekin

Eikenek mahainguru batean parte hartuko du, Ikus-entzunezkoen Klusterrek negozio sortzaile gisa duten egitekoari buruzkoa

Bilbo, 2011ko urriaren 11. **Basque Audiovisual Services + Tech**, Eiken-Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak oinarri teknologikoko enpresak biltzeko abian jarri duen ekimena, Broadcast Ikus-entzunezkoen Teknologiaren azokan izango da Madrilen, urriaren 25etik 28ra. Helburu nagusia sektoreari merkatu profesional garrantzitsuenetara iristen laguntzea da, produktu edo zerbitzuak saldu eta munduko fabrikatzaile nagusien azken berrikuntzak eskuratzeko.

Aurreko edizioetan bezala, **Basque Audiovisual Services & Tech** markak bere standa izango du Ifemako 3. pabilioian. 200 enpresa inguru bilduko ditu azokak, eta 15.000 bisitari baino gehiago espero dira. Alde horretatik, Euskadiko oinarri teknologikoko enpresak Broadcast azokan egotea, **Basque Audiovisual** markaren babespean, urrats garrantzitsua izango da Eiken enpresa garapenaren eta merkatu berrietara zabaltzearen alde egiten ari den lanean.

Horrela, **Basque Audiovisual Services + Tech** markak Broadcast 2011n jarriko duen standari esker, euskal enpresak egiten ari diren lan teknologikoa ezagutaraziko da, eta ikus-entzunezkoen edukien ekoizpenerako baliabide aurreratuak eta produktu berriak aurkeztuko zaizkie atzerriko eragileei. Enpresa hauentzat mesedegarri izango da marka baten babespean aurkeztea, pisu handiagoa izango dutelako azokan bakarka aurkeztu izan balira baino.

Klusterren mahaingurua

Broadcast 2011n, gainera, mahainguru berezi bat egingo da Ikus-entzunezkoen Klusterrek eduki eta negozio sortzaile gisa duten zeregina aztertzeko. Mahaingurua azokaren lehen egunean egingo da, arratsaldean, eta Fernando de Garcillánek koordinatuko du, Madrid Network Cluster Audiovisualeko zuzendari-gerenteak. Hizlarien artean izango da Itziar Mena Eikeneko zuzendaria.

Broadcast azokaren 15. edizioa ikus-entzunezkoen sektorean negozio aukera



berriak sortzen ari direnean egingo da, TDTaren ezarpenak, HDren hedapenak, zinema digitalak eta estereoskopiak eragindako eraldaketa prozesu betean.